

gaz-teak



Doako alea

325 Zb.
www.getxo.eus

>> 2018 Ekaina



Nabarmen^{tzekoak}

- > Ateak zabaltzeko eguna Algorta eta Romoko gaztelekuetan
- > Laugarren Book Trailers Lehiaketako sari banaketa ekitaldia
- > Laneko gatazkei aurre egiteko tailerra

Laneko gatazkei aurre egiteko tailerra

Ekainaren 18an eta 20an, astelehena eta asteazkena, hurrenez hurren, Getxo Elkartegiko 3. aretoan (Ogoño kalea 1, Areta), laneko gatazkei aurre egiteko lantegi bat eskainiko da. Lantegiak hiru helburu izango ditu: oraingo edo etorkizuneko lan-esparruan kudeatzeko zailak diren hainbat egoeretan murgildu eta arakatzea; gure lan-trebeziak zabaldu, gure sentimendu eta emozioen bitartez; eta gure gatazkei eman beharreko irtenbideetan arakatzea. Izaera erabat praktikoa du lantegi honek. Kasu eta egoera errealak mahaigaineratuko dira. Horretarako bideo grabaketaren tresna eta antzerkia teknika gisa erabiliko dira norbanakoek euren bizipenak aztertu ahal izateko.

Bizkaian bizi diren 20 urtetik 29 urtera bitarteko gazteei zuzenduta dago tailerra.

Lantegia dohainik eskainiko da, Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzaketaren eta Udalaren laguntzari esker, eta 6 orduko iraupena dauka, guztira (ordutegia: 17:30etik 19:30era, bi egunetan). Tailerretan parte hartzeko interesa duen orok izena eman behar du info@gizabi.org helbidera idatziz edo 693.949.288 telefono zenbakiarekin kontaktuan jarritz, deituz edo whatsapp bidez.

Europako Boluntario Zerbitzua

Europako Boluntario Zerbitzua (EBZ) nazioarteko bolondresgo programa da, Europako batzordeak finantzatutakoa. Europan bizi diren 17 eta 30 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta, eta haren bitartez, nazioarteko bolondresgo zerbitzua egiteko aukera ematen die, Europa, Afrika, Asia edo Hego Amerikako organizazio edo erakunde publiko batean. Zerbitzua egiteko aldia bi astetik urtebetara doa eta dohainik da. Argibide gehiago: <https://servicio-voluntarioeuropeo.org/que-es-sve/>



BEKAK SARIAK

* **Arte Ederren Museorako beka.** Iberdrola España Fundazioak eta Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioak lehiaketa deitu dute museoko Zaintzeko eta Zaharberitzeko Sailerako bi prestakuntza-beka emateko. Irailaren 3an hasiko dira eta 10 hilabeteko iraupena izango dute. Zenbatekoa: 15.000 euro gordinak. Aurkezpena: ekainaren 12ra arte. Eskabideak eskuratzeko: online, museoko webgunean eta https://www.museobilbao.com/uploads/becas/archivo_es-1-13.pdf. Kontsultak: Tel.: 94 439 60 60.

* **#CedefopPhotoAward 2018 argazki lehiaketa,** Europako Lanbide Heziketaren Garapenerako Zentroak deituta, LHko ikasleentzat. Lehiaketaren helburua da ikasleek hausnarketa egin dezaten eurentzat lanbide heziketak duen esanguraz. Gehienez lau lagunez osatutako taldea eratu eta argazki-kontaera original bat aurkeztu beharko dute, hiru-bost argazkikoa, eta gehienez 100 hitzeko testu bat. Sariak: bi bidaia Vienara eta beste bat Salonicara. Lanak entregatzeko epea: uztailearen 15era arte. Argibide gehiago: Cedefopeko webgunea eta http://www.cedefop.europa.eu/files/cedefop_photo_award_rules_2018_es.pdf

Romoko Gaztelekuaren Programazioa

Ekaina

Hilak 2, larunbata: MASTERCHEF: ZUKUAK ETA BATIDOAK
Hilak 7, osteguna: ATE IREKIAK GURASOENTZAT
Hilak 8, ostirala: ASANBLADA
Hilak 13, asteazkena: MASTERCHEF: PASTELA
Hilak 17, igandea: MUNDUKO ARROZAK GETXO
Hilak 20, asteazkena: PAPIROFLEXIA
Hilak 22, ostirala: JOLASAK KANPOAN
Hilak 27, asteazkena: ESPERIMENTUA
Hilak 28, osteguna: ZOZKETA
Hilak 30, larunbata: IGERILEKURA IRTEERA

Algortako Gaztelekuaren Programazioa

Ekaina

Hilak 2, larunbata: IRTEERA: UDAKO JAIA: BIGSUP
Hilak 6, asteazkena: MASTERCHEF: GAZTA TARTA
Hilak 8, ostirala: TXAPELKETA: AIR HOCKEY
Hilak 9, larunbata: JAIA: GAZTE GARBI
Hilak 13, asteazkena: ESKULANA: ORRI-MARKATZAILEA
Hilak 14, osteguna, eta 27, asteazkena: PERTSONA ERREFUXIATUAREN HILABETEA
Hilak 15, ostirala: TAILERRA: NESKENTZAKO
Hilak 17, igandea: IRTEERA: GETXOKO MUNDUKO ARROZAK
Hilak 19, asteartea, eta 20, asteazkena, eta 21, osteguna: CONSTRUCT 2.0 BIDEOJOKOA SORTU
Hilak 24, igandea: ZINEKLUBA
Hilak 28, osteguna: TOPAKETA: ASANBLADA
Hilak 29, ostirala: MASTERCHEF: MEXIKAR BURRITOKAK
Hilak 30, larunbata: IRTEERA: KAYAK + PADDLE SURF



Ostegunean, ekainak 7, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara Ateak zabaltzeko eguna Algorta eta Romoko gaztelekuetan

Datorren ekainaren 7an, osteguna, Algortako GauEgun eta Romoko GureGune gaztelekuak ateak ireki dituzte zerbitzua bertatik bertara ezagutu nahi duen edonorentzat. Helburu horrekin bisitak antolatuko dira aipatutako bi gaztelekuetara. Honako ordutegi hau ezarri da horretarako: 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta, hain zuzen ere, zerbitzua-

ren hezitzaile taldeek gidatuko dituzte. Bisita horietan, espazioak erakustez gainera, gaztelekuetan eskaintzen den zerbitzuaren helburu eta lan metodologiak azalduko dira. Era berean, zerbitzuaren arauen, jardueren eta abarrekoen inguruan sortu litezkeen zalantza guztiak argitzen ahaleginduko da. Gazteria Zerbitzuak, batez ere,

gazteleku zerbitzua erabiltzen duten edo erabiltzeko adinean (11 urtetik 17 urtera) dauden Getxoko gazteen familiak animatu nahi ditu zerbitzua ezagutzera. Algortako Gaztelekuak Urgull kalean dagoen udal eraikineko 3. solairuan dago, eta Romokoa Santa Eugenia plazako RKE-Romo Kultur Etxeko eraikinean dago (sarrera atzeko aldetik dago).

Laugarren Book Trailers Lehiaketako sari banaketa ekitaldia

Getxoko IV. Book Trailers Lehiaketako sari nagusia irabazi dutenak, honako hauek dira: A mailan (12-15 urte), Eneritz Quincoces, Amaier Rodriguez eta Jon Gil, Betiko Ikastolako ikasleak, *Gerrateko ogia* liburuari buruzko lanari esker; B kategorian (16-18 urte), Eider Rodriguez eta June Ares, Artaza-Romo Institutukoak, *Conmemara gure bihotzean* liburuarekin.

A kategoriako bigarren saria, Aixerrota Institutuko Andoni Tejerok egindako *Zigarrotxo ahoz aho* goiburuko bideoak irabazi du. B kategoriako bigarren sariari dagokionez, Ainhoa Larrazabalek eta Nora Arcek irabazi dute, horiek ere Artaza-Romo Institutuko ikasleak, zentro bereko txapeldunen liburu berberekin. Publikoaren saria ere eman zen; ikusitako bideoen artean bat hautatu zen, jendeak bere bozka kutxa batean sartuz. Oraingoan, Victor Veloso eta Enara Cañada izan dira irabazleak (horiek ere Artaza-Romo Institutuko ikasleak), Frida Kalhoren biografiari buruzko bideo batekin. Maiatzaren 20an, igandearrekin, egin zen lehiaketako sari banaketa ekitaldia Romoko GureGune gaztelekuetan, RKE-Romo Kultur Etxean kokatuta dagoena. Lehiaketa hau Udaleko Gazteria eta Euskara sailek, Udal Liburutegiak eta Kalabazan Elkarteak babestu dute, aurreko hiru edizioetan bezala. Iker Deusto DJ-ak aurkeztu zuen ekitaldia eta bertan 17 bideo-lan ikusi ziren. Horiek ikusi ondoren, Itxaso

Frau eta Klaudia Martínez ikusentzunezkoetan adituek aukeratu zituzten irabazleak. Lehen sariak 300na eurokoak izan dira eta bigarrenei 50 euroko bono bana eman zaie taldeetako kideei, Romoko Gobelaurre liburu-dendan erosteko. Publikoaren saria, bi abentura-kamera. Laugarren lehiaketa 2017ko urriaren 11n itxi da; epe horretan, gazteek euren lanak bidali dituzte: propo-

satutako liburuetatik bat aukeratu eta horri buruzko book trailearra prestatu dute. Lanak ikusteko estekak: A kategoria <https://www.youtube.com/watch?v=IEZ7K6lXHCK&list=PLoF-zueA-idiVN69H17D11lx-EJUGBvvdK> B kategoria <https://www.youtube.com/watch?v=6QiWGOUblGQ&list=PLoF-zueA-idiU57AJAB6m1hXAsbj-DeG59>

